



Mungia Udalak bihar, azaroak 2, hasiko du 2024ko aurrekontuak diseinatzeko parte-hartze prozesua

-Azaroaren 2tik 16ra bitartean, mungiarrek aurrez aurre (HAZ, Udal Kirolegia eta Behargintza) eta www.mungia.eus helbidean online aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak

-Parte hartzeko formula horrek herritarren lehentasunak ezagutzea ahalbidetzen du, eta Mungia herritarrei hitza eta erabakitze ahalmena ematen die.

Mungian, 2023ko azaroaren 1ean. 2024ko Aurrekontu Parte-hartzaileak egiteko prozesua martxan da dagoeneko Mungian. Izan ere, Udalak bihar, azaroak 2, irekiko du mungiarrek udalerrirako lehentasunezko zat jotzen dituzten eta datorren urtean gauzatu litezkeen jarduerak proposatzeko epea. Parte hartu gura duten guztiek azaroaren 2tik 16ra bitartean inprimaki bat bete beharko dute eta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, Udal Kirolegian eta Behargintzan dauden hautestontzietan utzi. Egun horietan bertan, ekarpena online ere egin ahal izango da www.mungia.eus webgunean, herritarren parte-hartzea erraztu eta arintzen duen formula. Gainera, azaroaren 3an, 4an, 9an, 10ean eta 11n, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, bi pertsona Mungia hainbat gunetan ibiliko dira, prozesuari buruzko informazioa emateko eta parte-hartze aktiboan laguntzeko.

Urtero egiten den bezala, Udalak azpimarratu du mungiarrek egiten dituzten proposamenak udal-eskumenekoak izan behar direla, eta alde tekniko eta ekonomiko bideragarriak. Gogorarazi du, halaber, ez dela Mungia obra txikien edo mantentze-lanen gaineko ekarpenik egin behar, gaur egun horretarako partida zehatzak daudelako.

Alaitz Erkoreka Mungia alkateak adierazi duenez "parte-hartzaileek udalerraren etorkizunerako positiboak diren proiektuetan pentsatu behar dute, guztion onurarako direnetan. Orain hasten ari garen prozesu hau parte-hartzeko dugun tresnarik indartsuenetakoa da, mungiarrek eurek hartzen dutelako ahotsa eta boterea euren herrikeri zuzenean eragiten dieten erabakiak hartzeko orduan".

Izan ere, 2018an Mungian Aurrekontu Parte-hartzaileak abian jarri zirenetik, Mungia pertsonen proposatutako 13 proiektu gauzatu dira. Horren erakusgarri, duela gutxi horietako hiru inauguratu dira: parke botanikoa Uriguen parkean, areto berriak Udal Kirolegian eta pumptrack gunea skate parkean.



MUNGIA
UDALA



Erkorekak adierazi bezala, "pertsonegan eta haien

bizi-kalitatean oinarritutako aurrekontuak diseinatu eta gauzatu gura ditugu, mungiarrek benetan eurenak direla senti dezaten. Aurrekontu parte-hartzaileen prozesua horren erakusgarri da". Horregatik, Mungiako Udalak

herritar guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera eta euren iritziak eta lehentasunak zuzenean adieraztera.